9. zk.
2001

# Be eskolara

Nafarroako eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

## editorial

**"IKASTETXEETAKO ELKARBIZITZA: EGOERA ULERTZEKO ERA".**

(Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XII. Topaketei buruzko ondorio-agiriaren 1. zatia, Donejakue, 2000ko maiatza).

1. Hezkuntza-zentroetako lanean sartuta dago hezkuntza-erkidego osoa. Beraren kidek egunero aurre egin eta ekiten diote beren lanari. Irakasleek irakasteko eta hezteko beren lana hobetu behar dute, eta ikasleek hezkuntza-edukiak ikasi eta menperatu behar dituzte eta globalki hezi. Batzuetan lanok urriki atsegina edo laguntzailea den giro edo testuinguruan egin behar dira. Hezkuntza-agenteek dute giro hori hobetu eta lehentasunezko lana erazteko aukera: irakatsi eta ikastea.

Horrela, hezkuntza-prozesuari arrakastaz jarraitzeko ahalegin handiak egin ahalko ditu. Izan ere, horixe da lortu gura den helburua.

Hezkuntza-prozesua erraztu edo zaildu ahal du hezkuntza-agenteen elkarreraginarren ondorioz gelan edo ikastegian etengabe-edo sortzen den giroak. Hezkuntza-agente horiek honakook dira: irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideak. Gelaren kasuan elkarreraginari arloaren ezaugarriak, metodoa eta gunea gehitu behar zaizkio; eta ikastegiaren kasuan, antiolakuntza- eta kudeaketa-estiloa, guneak eta ikastegiaren beste ezaugarri batzuk.

2. Elkarbizitza hezkuntza-prozesuko helburu zehatz eta funtsezkoa da eta berekin dakartza errespetuzko eta adostasunezko jarrera eta portaera onak, eskola-erkidegoko arlo guztien aldetik. Beraren xedea gizarte bizitza heldurako hezi eta eskola-giroa hobetzea da.

Horretarako ezinbestekoa da gizarte osoaren lankidetza. Egin-eginean ere, ikastegietako elkarbizitza, aldez, gizarteko elkarbizitzaren islada da, bertan ikusten diren kontraesanak eta arazoak islatzen dituena. Horregatik, ez da erraza hezkuntza-zentroetan elkarrekin bizitzearen problematikari heltzeko behin-betiko konponbideak ezartzea, eskola murgilduta dagoen gizartean erasokortasun eta indarkeriazko jarrerarik hartzen bada. Izan ere, erasokortasun eta indarkeria fisiko edo psikologikoak zuzeneko eta zeharkako eragina dute hezkuntza-eremuan agertzen diren eragileetan. Hezkuntza-zentroetako elkarbizitza hobetzea beharrezkoa da gizartea osatzen duten pertsona, talde eta erakundeen artean dauden harremanak hobetzeko.



**XII. Topaketa Galizian.**
**Nafarroako Eskola Kontseiluaren ordezkariak**

3. Gatazka gizarte aske eta demokratikoetan ohikoa da, baina, gainera, kontutan hartu behar da ezen eskola-sistema beti izan dela eta dela, berez, gatazkatia, eta eskola-biztanleen gainean presio, inposaketa eta indarkeri maila altua sorrarazten duela: eskolara derrigorrez joan beharra (gero eta eskolarapen luzeagoa), lanak derrigorrez betetzea, norberak aukeratu ez dituen lagunekin derrigorrez bizitzea, helduek hartutako erabakiak, agintea eta ibilera baldintzak eta arauak derrigorrez onartzea eta abar. Erabaki horiek ez dira beti egoten behar bezain adostuta. Ez da batere harritzekoa eskola-sistemak gazte-belaunaldiengan erantzun gero eta kontrakoagoak piztea. Izan ere, beste aldetik, gazteok bizi diren gizartea gero eta permisibo eta bigunagoa da gazte-belaunaldienganako bere eskaeren mailan.

# Editoriala

4. Gizartean eta familietan egun permisibotasun maila altua dago gazteen jarrera eta portaerei begira. Egoera hori dela eta (beronek berez nolako balorazioa merezi duen kontutan hartu gabe), derrigorrezkotasunzentzua beharrezko ezaugarri duen eskola-ordena berenganatzeko gazteen gaitasuna ahultzen da. Hezkuntza-sistemak inposaketa batzuk eskatzen dituen arren, ikasleei poz eman behar zaie ezagupenak hartzeko.

Familien gainean eragina du tradizioko gizarteen baloreen krisiak. Izan ere, ez dugu asmatu haien ordez beste batzuk jartzen. Horren ondorioz, nahasmena etorri da. Zertan hezi oso ondo ez dakigula eta, inhibizioa eta jarrera permisiboa pizten da. Horrek ez du esan nahi hezkuntza-inhibizioaren faktore bakarra familia denik; izan ere, badaude jarrera permisiboak eragiten dituzten beste kultur, gizarte eta ekonomi elementu batzuk...

5. Globalki, gazteek egun ongizate eta kontsumorabide maila altuak dituzte, egun belaunaldi helduek bizi izan zuten haurtzaroan eta nerabezaroan pentsaezinak zirenak. Desfase edo gehiegikeriazko egoeretan izan ezik, bistan da egungo egoera ezin dela txartzat hartu. Baina, era berean, jakin behar da ezen ia guztia izan eta lupertzea ahaleginaren pedagogiarentzat bereziki lagungarria ez izatea gerta daitekeela. Izan ere, pedagogia hori epe luzerako errentagarria da soilik, eta beraren gainean finkatuta dago, hain zuzen ere, eskola-sistema. Horrela, hori gaztearen iritziz, kontraesale eta etsai bihurtzen da.

Jakina, txarra izango litzateke eskatzen ahal den ahaleginaren kota muga traumatiko edo oso hautakor eta baztertzaileetaraino igotzea. Baina ez da ona haiek beheratu eta ezeragile egitea; eta txarragoa da ahaleginaren eskaerak errazki saihestea ahalbidetzen duten mekanismoak ezartzen uztea eta gazteari lortzen saiatu ere egin ez dena lortu izanaren ilusioa egiten laguntzea.

6. Dirudienez, bi menderen artean, teknologi iraultza teknologiko bizkortuarekin eta balore-aldsaketarekin eta inoiz baino bitarteko material gehiagorekin, berriz ikusi behar ditugu balorerik funtsezkoenetako batzuk, hala nola, besteak errespetatzea, tolerantzia, elkarbizitza eta pertsonen arteko elkartasuna. Gainera, berriz kontutan hartu behar ditugu partaidetza eta demokrazia abiaburu oinarrizkoak, baita giza eskubideak, ingurugiroa, aukeraberdintasuna eta zuzentasuna errespetatzeko balorea ere.

Horretarako, eskola-eremuaren barruan:

a) Irakasleek gizartean gertatzen ari diren aldaketen aurrean bete behar dituzten eginkizunari eta funtzioei buruz hausnar egin behar dute. Egungo irakasleak gizarte jokarauak egungoen ezberdinak diren egituran eta sisteman iikasi zituen. Hortaz, aurreko ereduak egun ez du balio eta irakasleak beste era batera jokatu behar du ikasleen errezeptoreek konekta dezaten.

b) Gurasoek familian, eskolan eta gizartean elkarrekin bizitzeko arauak egiten parte hartzeko eta beroriek adostea eta onartzea errazteko konpromisoa hartu behar dute.

c) Ikasleek ikasle talde eta biltzarrek proposatutako elkarbizitzarako arauetan eta eskola-erkidegoak proposatu eta onetsitakoetan parte hartu eta lagundu behar dute.

d) Hezkuntza-erkidego osoak ikastegiaren elkarbizitzarako arauak hobetzeko konpromisoa hartu behar du.

7. Elkarbizitzaren eta disziplinaren gaineko ikuspegi zabal eta positiboa hartu behar da. Izan ere, hezkuntza-prozesuen kalitatea bilatu behar da, baita pertsonen arteko eta eskola-erkidegoko arlo eta erakundeen arteko harremanen harmonia ere.

Ez bide da egia ikastegietan elkarbizitza-arazoak gatazka- eta indarkeria-eran bakarrik agertzen direnik. Hori dela eta, haiek txar-txarrak dira gurentzat eta, horren ondorioz, zigortzeko eta kontrolatzeko neurriak eskatu behar ditugu, ikasleen kontrakoak normalean. Izan ere, ikasleak eskolan gertatutako gatazken eragile nagusitzat hartzen dira.

8. Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie, gizarte komunikabideetan ezezik, botere publikoen eta eskola-erkidegoaren beraren aldetik ere, elkarbizitzarekin loturiko gaiei (eskoletako indarkeriari, ordena- eta disziplina-arazoei, eskola-erkidegoko arloen arteko harremanak urriki errazten dituzten azturei eta abarri). Garrantzi hori gorabehera, orain arte ez da arazoei erantzuna ematen dieten ekintzen eta ekimen eraberritzaileen politika positiborik egon. Txarra da guztia disziplina eta zigor-neurriak gogortzeko proiektu baten eskuetan jartzea. Izan ere, egia esan, neurri horiek inork ez ditu guztiz aplikatuko. Egineginean, azkenean inor ez dago beraien eraginkortasunaz konbentzituta.

9. Eragin ona izan behar du hezkuntza-munduak komunikabideek eskolan elkarrekin bizitzearen gaian duten eraldaketa-eginkizunean. Izan ere, uste denez, sarritan irakasleen eta ikasleen okerreko irudia ematen dute komunikabideek. Irakasleak estresdun eta ilusiorik gabeko talde bat bezala irudikatzen dituzte; eta ikasleak, talde gatazkati bezala. Irudi hori inoiz ez da gauden benetako egoeraren adierazlea.

10. Komunikabideek, bai nazio-eremukoek bai Autonomia Erkidegokoek, gero eta sarriagotan hartzen dituzte eskolan gertatzen diren indarkeriazko ekintzak hizpide. Arazoa lasaitasunez aztertu beharrean, komunikabideotako batzuek zirrara egin gura dute eta, kasurik gehienetan, beharrezkoa ez den alarma eragiten dute, arazoa hezkuntza eta gizarte ikuspegi egokitik aztertzea eragozten duena.

Zorroztasun handiagoa eskatu behar zaie gizarte komunikabideei, herri titulartasunekoei bereziki, haurrak babesteko sinatutako akordioak betetzean. Horretarako, kontrabaloreak sustatu eta gizartearen kontrako portaerak bultzatzen dituzten programak saihestu behar dira. Azkenik, komunikabideetan erakunde-kanpainak garatzea beharrezkoa da irakasleen hezkuntza-funtzioa baliozta dadin.

# Ikasgela Gaur

## ERMITAGAÑA IKASTETXE PUBLIKOAREN 25. URTEURRENA

Iruñeko Ermitagaña Ikastetxe Publikoak sortu zenetiko 25. URTEURRENA bete eta ospatu berri du. 1976an sortu zen eta orduan bere jarduerak hasi zituen hurrengo ikasturtera sartzeko ziren ikasle berrien matrikulazioarekin. Aurtengo maiatzean, efemerideak ospatzeko kultur, jolas eta gizarte jarduera batzuk programatu ditugu.

Ikastegia izen bereko auzoaren eskola-beharrizanei konponbidea emateko eraiki zen. Hura orduan bukatu zen, halaber. Garaiko prentsa kontsultaturik, egiazta daiteke ezen hura etxebizitzak eman baino lehen bukatu zela. Alderdi hori oso ospatua zen orduan eta horregatik oso pozik zeuden beren buruarekin agintariak eta auzotarrak. Prentsako artikuluetan agertutakoaren arabera, horrek ondorengo eraikuntzetarako aurreko bezala balio izatea nahi da.




Horrelako urteurrena gogoratu eta ospatzen denetan, nahitaez atzera begiratzen dugu pasatutako denboran zehar gertatutakoa aztertzeko: izandako eraldaketak, lortutako gauzak eta oraindik lortzeko daudenak.

Hasieran anitz matrikulatu ziren, 641 ikasle. Berauek OHOko 16 unitatetan eta eskolaurreko unitate 2tan banatu ziren. Hortaz, gela bakoitzean 40 bat ikasle zeuden. Ikastegia leku urriegiarekin sortu zen eta horixe izan zen lehenengo ikasturteetako kezkarik handiena. Aldarazpen batzuk egin ziren eskuratzen ahal ziren metro karratu guztiak gela bihurtzeko, eta mugako etxabe batzuetan lau unitate egokitu ziren eskolaurrekoentzat. Horrekin batera, plaza-eskaintza zabaldu zen bi linea osorekin (eskolaurreko 6 unitaterekin eta OHOko 16 unitaterekin). Jaiotza-tasak behera egin duela eta, Hezkuntzaren Eraldaketa 1995ean indarrean jarri zela eta, gela batzuk egungo beste beharrizan batzuetarako erabili ahal izan dira: informatikarako, musikarako, hizkuntzetarako eta abarretarako. Egun 315 ikasle daude matrikulatuta, Haurren Hezkuntzako eta Lehen Mailako Hezkuntzako bi linea osotan banatuta. Gela bakoitzean 17,5 ikasle daude, batez beste.

1998-1999 ikasturten ikastetxe honetara sartu ziren Jose Mª Iribarren Ikastetxe Publikoko ikasleak eta irakasle batzuk, normaltasun osoz. Egungo ikasleak Mendebaldea auzotik datoz gehienbat.

Ikastetxea hasi zenetik, berarentzako lehentasunezko helburua izan da atzerriko irakaskuntzak irakastea. Lehenengo ikasturte haietan frantsesa zen irakasten zen hizkuntza. Laster hasi zen Ikastetxea alboko herriarekin harremanetan jartzen, goi-zikloko gure ikasleentzat eskola-trukea izateko eta hiru helburu lortzeko: a) frantsesa erabili eta sakontzea, b) gizarte ezberdina ezagutzea eta c) eskola-esperientziak ikastegi bion artean trukatzea. Pirinioaren beste aldeko hurbileko udalerri batzuekin saiatu ginen arren, ez genuen hori interesatzen zitzaion ikastegirik aurkitzerik lortu. Zabalago bilatu eta 1980an jarduera hori hasi genuen Saint Gilles Croix de Vie (Vendèe) Ikastetxe Publikoarekin. Esperientzia ikastegi bientzat hain ona izan zen non hamabost ikasturte jarraian iraun zuen. 1995ean eraldakuntza indarrean jarrita eta frantziar ikastegia bigarren maila hezkuntzakoa izaki, lekukoa eman behar izan genion Navarro Villoslada Institutuari, gure ikasleek bertan ikasten jarraitzen baitute. Lekukoa bertan dago oraindik. Guk hiru truke gehiago egiten dugu Lehen Mailako ikasleekin: bat, Bigorreko Biceko ikastegi batekoekin eta beste bi Bordeleko Martillac-eko beste ikastegi batekoekin.

Ikastegiak ildo horretatik ahalegin handiak egin zituen eta, hori zela bide, Hezkuntza Departamentuan eskolaurreko ikas-mailetan atzerritar hizkuntzaren irakaskuntza zabaldu eta hirugarren ziklokoentzat bigarren hizkuntza sartzeko eskabidea aurkeztu genuen. Bi gauza horietarako baimenak 1993an eta 1995ean lortu ziren.

1993-1994 ikasturtean, Ikastegiko Eskola Kontseiluak "A" eredua ezartzeko eskaera egin zuen; eta 1996-1997 ikasturtean, lehenengo hizkuntza bezala frantsesa kendu eta ingelera jartzea eskatu zuen. Eskaera biok onartu ziren.

Egun, Ingalaterrarekin trukeak ezartzen saiatzen gara gure lehenengo hizkuntza den ingelerari begira helburu berak lortzeko. Jarduera zaila da, Ingalaterrako ikastetxeek trukeekin interes handirik agertzen ez baitute eta, gainera, Lehen Mailako Hezkuntzan gaztelania ematen duen anitzik ez baitago. Nolanahi ere den, uneotan baten batekin kontaktua dugu eta espero ukan dezagun hori guztia sendotzea eta jarduten berriz ibiltzen hastea.

Zentzu horretan, hurrengo ikasturtean hasiko gara, Nafarroako beste ikastegi batzuekin batera, Haurren Hezkuntzako eta Lehen Mailako Hezkuntzako lehenengo zikloko gai batzuk ingeleraz ematen.

Horiek dira gure proiekturik hurbilenak, Ikastegiaren Hezkuntza Proiektuarekin eta gainerako irakas-jarduerekin batera hurrengo ikasturteetan hezkuntza-erkidegoari eskainiko dizkiogunak. Beronek onartuko dituelakoan gaude, zertarako eta Ermitagaña Ikastegi Publikoak auzoan hezten askoz urte gehiago jarraitzeko.

Hogeita bost urteotara heltzea posible egin duten familia, ikasle eta irakasleei eskerrak eman gura dizkiegu.

José Antonio Blázquez. Zuzendaria.

# Ikasgela Gaur

## BERRIOZAR: 25 URTE IKASTEGI BATEN BIZITZAN

Urteurrena ospatzea zio bikaina da urteotan gertatutakoa errepasatzeko eta halako perspektiba batez ikusteko eta, hartutako esperientziarekin, hemendik gutxira zer izango dugun susmatzeko.

Onomastika eskola-zentro bat abian jartzeari badagokio eta, horretarako, 1975eraino bagoaz, oroitzapenek eta bizi izandako gertaerek liburua idazteko beste pertsona eta egoera hartuko dituzte barnean.

1970eko hamarkadan, Berriozarko biztanleak askoz gehiagotuak ziren, Nafarroatik kanpotik eta komunikatetik Iruñeko eskualdera lan egitera pertsona asko bertaratuak baitziren. Gehiagotze horrek eskola-biztanleria ere askoz gehiagotzea ekarri zuen. Eskola-biztanleei jaramon egiteko pisuak, etxabeak eta abar gaitu behar izan ziren, jolas-patioa kalea zen, janlekuratzeko herriko kaleetan zehar ibili beharra zegoen eta gelako ikasle kopurua kasu askotan 40 ikasletik gorakoa zen. Egoera hori ikusirik, premiazkoa zen zegoen eskariari erantzun egokia emateko ikastegi berria eraikitzea. 4 urteko prozesu baten ostean 1975-1976 ikasturtea heldu eta ikastegia egia bihurtu zen. Hori ipelikulakoaî-edo zen: gela guztiak eraikin berean zeuden, argiz beteta, zabal, areto-nagusia, laborategia, langela eta bilera-gelak eta 600 pertsonarentzako janlekua. Patioaren zati bat mendia bera zen, ikastegia San Kristobal mendiaren hegaletan kokatuta baitago.



Aldaketak ez zuen itxura fisikoa bakarrik ukitu: aurrekoa bezain garrantzitsua edo aurrekoa baino garrantzitsuagoa zen beste aldaketa bat egon zen: Juslapeñako bailaran Izan eta Antsoainen beren herrietan eskola bateratuetan eskolatuta zeuden ikasleak urte hartan Berriozarrera heldu ziren beren maisu-maistrekin. Gauza berri hori itzela izan zen Berriozarko ikasleentzat; eta are garrantzitsuagoa, herrietako ikasleentzat.

Urteotan zehar hura handiagotu eta hobetu da beharrizan berriei eta hezkuntza-plantemendu berriei erantzuna emateko. Horrelako azken ekintza Institutua sortzea izan da. Hori dela eta, Berriozarko hezkuntza-eskaintza publikoa 16 urteetara arte zabaldu da.

1985ean ikastegiaren hezkuntza-eskaintza zabaldu zen, D eredua abian jarrita. Harrezkero, ikastegian egondako bi bideak elkarrekin ondo moldatu dira, eta, egun, hura Iruñeko eskualdean derrigorrezko hezkuntzaren etapa osoa euskaraz eta gaztelaniaz ematen duen ikastegi bakanetakoa da.

Irakasleen arloan bilakaera handia egon da. "Dena" ematen zuten irakasleak zeuden lehen, eta orain espezializazioa dago, beharbada handiegia adin-tarte batzuentzat. Izan ere, adin-tarte batzuetan ikasleekiko harremanen beste alderdi batzuk daude, irakasgaia oso ondo jakitea bezain garrantzitsuak direla eta lehenetasuna eman behar zaienak. Giza harreman onak, "egoten jakitea", ikastegian parte hartzea eta hori beste lan bat ez dela ulertzea irakasleek beren lan onerako kontutan hartu behar dituzten ezaugarri garrantzitsuak dira.

Ikastegia beti nabarmendu da (eta egun nabarmentzen da) gai ezberdinen programazioaren osagarriak diren aparteko jardueren programa bat egiteagatik. Egun baterako irteerak, elkarbizitzak, kanpamentuak, aste zuriak eta ikasturtearen bukaerako bidaiak arloak sendotzen laguntzeaz gain hezkuntza-erkidegoko kideen giza harremanak lantzeko balio duten jarduerak dira.

Toki erakundeen laguntzak lehen eta orain, etengabeak izan dira, jarduera horiek doan gehienbat garatzeko.

Hezkuntza-aldaketak urteotan bata bestearen atzetik etorri dira eta ikastegia ez da egon beraietatik at. Irakasleek parte hartu dute aurreskolako (egun haurren hezkuntza) eta bigarren etapako (egun DBH) eraldaketetan. Esperientziok onak izan dira. Izan ere, beraiek direla bide, errazkiago egokitu gintzaizkien guztiok haiei berauek orokortu ostean.

Teknologia berriak, ikus-entzunezko bitartekoak eta ikasleak lehen eskolan bakarrik ikusten ahal zuten mundu batera sartzea hezkuntza-prozesua gauzatzeko eta eskola-jarduera guztien bitartez garatzeko orduan kontutan hartu behar diren faktoreak dira. Lortu beharreko helburuak lortzeko bitartekook era orekatuan erabiltzea da egungo eskolak mahai gainean duen erronketako bat.

Berriozarko eskola publikoak, sortu zenetik, beti eman die erantzuna urte hauetan guztietan zehar beren seme-alabentzako hezkuntza-aukera bezala gehienbat aukeratu duten pertsonen beharrizanei eta eskariei. Aniztasuna izan da eta da ikastegiaren ezaugarrietako bat. Aniztasun hori urte hauetan areagotu da eta berriozartar ikasleak, landakoak, gizarte maila ezberdinekoak, nafarrak eta beste komunitate batzuetakoak, hizkuntz eredu ezberdinak eta abar daude. Gainera, egun, eraikina sortzea ekarri zuenaren oso antzeko egoera daukagu: Beste leku batzuetik familiak etorri ziren Iruñeko eskualdera lan egitera. Beste herri batzuetatik doazenen seme-alaba gero eta gehiago eta maizagoetortzeak hausnar eta lan eragin behar digu Nafarroako hezkuntza-sistema osoak proportzio egokian bereganatu ahal ukan ditzan. Gure ikastegiak erronka horri 1975ean baino abantaila gehiagorekin heltzen dio: baditugu haiei jaramon egiteko hezkuntza-gune fisiko egokiak. Pertsona onak prestatzen jarraitu nahi dugu, beren lanpostua eta nondikoa edozer direlarik ere gizarteratzeko gai direnak. Besteak errespetatzea eta laguntzea ezinbestekoa izango da. Familiek lankidetzan eta parte hartu beharko lukete zailtasun handiko aparteko abentura honetan.

Azken 25 urtotan lortu badugu...Elkar ikusi eta hitz egingo dugu 2026an.



oroa

## ÈLKARREKIN BIZITZEKO ARAZOAKÌ.

(Donejakuen 2001ean egindako XII. Estatu Topaketetako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Txostenaren 1. zatia).

Hasieran, Hezkuntza-zentroetan batzuetan ez dago eskola jarduera garatu eta bizitzen den hezkuntza-ingurunearen ezagupenik ez harekiko komunikaziorik, eta, hori dela eta, gatazkak sortzen dira. Zein izan daitezke horrelako egoerak?.

**Irakasleak:**

* Irakas-lanaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa eta gelaren barruan eta gelatik kanpo elkarrekin bizitzea oztopatzen duen indibidualismoa.

* Eskolako eta aparteko jardueretan eta jarduera osagarrietan parte ez hartzea eta elkarlanean ez aritzea.

* Adostasunak eta akordioak iristeko edo, iristen direnean, errespetatzeko eta aplikatzeko zailtasunak.

* Izaerak elkarrekin bateratu ezina, desakordio pertsonalak edo lanbide eztabaidak.

* Zuzendaritza-taldearen eta departamentuko buruen lidergoa eta ahalmena ez onartzea etas haien erabakiak edo proposamenak zalantzatan etengabe jartzea.

*Talde edo erkidego baten zati direla ez onartzea eta, beraz, akordioetara heltzea beharrezkoa ez dela pentsatzea.

* Gatazkak konpontzeko eta arazoen aurrean bitarteko aritzeko estrategiarik ez onartzea, beraien eginkizuna zalantzatan jartzen dutelakoan.

* Ikastegian ekartzen den jarreraren eta besteei eskatzen zaienaren arteko koherentziarik eza.

* Familien partaidetzaren aurreko susmoak.

* Barne-demokratizazioarekin zuzendaritza- eta kudeaketa-ereduekin, taldeen pribile zerikusia duten irakasleen arteko berdintasunarekin eta ezberdintasunarekin, zuzendaritza- eta kudeaketa-ereduekin, taldeen pribilegioekin eta korporazioko eta tradizioko antolakuntza-ereduarekin loturiko faktoreak

* Nor bere lanarekin pozik ez egotea eta nork bere burua aintzatesteko mekanismorik ez izatea. Igualitarismo nagusiak desmotibatu eta irakas-igurikapenak deuseztatzen ditu.

**Familiak:**

* Seme-alabak gehiegi babestea eta, horren ondorioz, ezinezkoa dena zuritzea, Ikastegia edo bertako irakasleak erruduntzea eta ikasleen nahiak, iritziak edo portaerak zalantzatan ez jartzea.

* Ikastegian elkarrekin bizitzeko arauak ez ezagutzea. Horrek ez du familia eta irakasleen arteko komunikazioa errazten eta elkarrekin bizitzeko marko egokia ezartzea eragozten du.

* Ikastegiko hezkuntza-lanean parte hartu ez eta berau nahi gabe edo nahita eskuordetzea. Beren hezitzaile gisako betebeharrak ez betetzeak zailtzen du egoera. Izan ere, beren seme-alabengan honako baloreok landu behar dituzte: errespetua, tolerantzia eta portatzeko azturak.

* Beren etxeen barruan elkarrekin bizitzeko arauak ezartzea gehiegi mugatzea. Horrek ez du ondo orientatzen eskola-zentroan jokatzeko arauen beharrizanerantz eta errespeturantz.

* Irakasleen eta Ikastegiaren aurreko defentsa-jarrera, gizartekontrako jarrera edo jarrera txarra duten ikasleen kasuan. Irakasleen lanbide gaitasuna gutxiestea.

* Familien Ikastegiko lanetako partaidetza urria. Ez ohi dute kidetza-sentimendurik izan, ez dute konpromisorik hartzen eta arau orokorrei urriki jarraitzen diete edo ez diete jarraitzen. Familien partaidetza urriarekin batera partaidetza hori errazteko zuzendaritza-taldeen eta klaustroen interes urria detektatzen da.

* Familiek ahalegin eta erantzukizunik ez eskatzea. Saria ez dago lanari loturik, berehalako presioari baizik.

* Ikastegiaren eta familiaren arteko jarduketa koherenterik ez egotea.

* Irakasleen eginkizuna eta agintea ez aintzatestea. Hasieran familia askorentzat arrazoi izaten du ikasleak irakaslearen aurrean, a priori alderantziz gertatu behar izanik ere.

* Gazteen bizitzan funtseskoak diren alderdietako permisibotasuna eta tolerantzia. Zentzuzko eta arrazoizko araurik ez izatea.

**Ikasleak:**

* Desmotibazioa edo eskola-sisteman integratuta ez egotea eta irteteko proposamenik ez izatea.

* Sarritan ikasleen ustez, ez dira errespetatzen eta ez zaie entzuten edo jaramonik egiten funtsezko kontuetan.

* Eskola-lanerako azturarik ez izatea eta hezkuntza-zentrotik kanpoko interesak izatea.

* Indarra, mehatxua eta arbuioa lantzea, ikastegian portatzeko sistema bezala, bai beren ikaskideekin bai familiekin eta irakasleekin...

* Elkarrekin bizitzeko eta portatzeko oinarrizko abiaburuak ez izatea, askotan ezta Ikastegiaren Hezkuntza Proiektuetan edo Barneko Araubideko Araudietan azaldurik ere. Sarritan egiaztatzen denez, mota bateko ikasleentzat "guztiak balio du eta ez da ezer gertatzen hemen". Izan ere, ez dira aipatu elkarrekin bizitzeko eta portatzeko oinarrizko abiaburuok edo berauek, dauden arren, ez betetzea onartuta dagoelako.

* Ahaleginik eta ikasketarik gabeko lanerako aztura, nahi duten guztia edukita lan egitekoa. Hortaz, berehalako arrakasta eskatzen da, atsegintasun etengabea, erraztasun osoak, pasibotasun atsegina eta abar.

* Ikasle problematiko edo integratugabeen kontzentrazioa, gainera arreta-bide berezirik ez duten ikastegietakoa

## 3/2001 IRIZPENA. "JOSÉ VILÁ MARQUÉS IPA EZABATZEKO FORU DEKRETUA" ETA "AVE MARÍA II IPA SORTZEKO FORU DEKRETUA".

Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ados dagoela bi Dekretuekin. Bi ohar azaldu ditu:

1. "José Vil· Marqués" IPari dagokionez, udalerritik kanpoko ikastegi batera egunero lekuz aldatzeak kezkatuta dago. Garraioan eta geletara heldu eta irteteko aldietan zaindu eta begiratzeko neurriak hartu beharko dira.

2. "Ave María" IPari dagokionez, Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen egungo Ikastegia hizkuntz eredu arabera hezkuntzari begira bereiztera, ez dela oso argi edo zehaztuta geratzen guneen erabilera. Beraren iritziz, hori etorkizuneko gatazketarako gunea izan daiteke. Hori dela eta, hobe da gai hori aztertu eta argitu eta, hala denean, proiektu edo/eta egokitzapen egokiak egitea.

Nolanahi ere den, Nafarroako eskola kontseilu honek bere damua agertu du zenbait hizkuntz eredu Ikastegi bakarrean konpartitu ezinagatik. Eredu nahigarri eta on hori ezin izan da ezarri Nafarroako Foru Komunitatean, zenbait kasutan hasierako eredua blokeatu duten Ikastegien barneko erabaki eta inguruabar batzuengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

Oraindik uste dugu, esperientzia ikusita, ezen horrelako Ikastegi konpartituak aldeek aurretik eztabaidatu eta adostuta azaldu behar direla, elkarrenganako lagapenekin. Baterako jarduerak eta lankidetza sustatu behar dira. Izan

## oroa

ere, hizkuntz helburuetan geldoago ibili arren, sendotasun handiagoz egingo da gizarte eta elkarbizitza helburuetan aurrera.

Nafarroako eskola kontseilu honek uste du ezen hizkuntz modalitateari begira eredurik egokiena Ikastegi konpartituena dela, gizarte aske eta demokratikoa osatzen duten funtsezko baloreetako hezkuntza ahalbidetzeko. Balore honakook ditugu: integrazioa, errespetua, aniztasuna, amankomuneko hezkuntza-proiektuetan parte hartzea... Hala ere, egiazta daiteke ezen egoera hori ez dela lortu ibilerarako adostutako akordiorik ez dagoela eta beste gauza batzuengatik. Egin-eginean, egungo egoerara heltzea saihes zitekeen.

**4/2001 IRIZPENA. JULIO CARO BAROJA II, TAFALLA II, SAN MIGUEL DE ARALAR II ETA ESTELLA BII INSTITUTU EDO IKASTEGIAK SORTZEARI BURUZKO FORU DERETUEI BURUZKOA.**

Gomendioak edo iradokizunak:

- Jatorriko ikasstegietako irakasleek eskubidea izango dute behingoz bereizketen ondorioz ikastegi berrietan inoizka sortzen diren beren espezialitateko plazei atxikitzeko.

1) Oso denbora urria du batzorde honek "Julio Caro Baroja", "Tafalla II", "San Miguel de Aralar II" eta "Estella" Ikastegiekin lotutako irizpena egitea. Hori dela eta, Administrazioari eskatu nahi dio Eskola Kontseiluaren irizpena eska dezanean bidezko agiriak garaiz bidal ditzan.

2) "Julio Pío Baroja II" Ikastegiari dagokionez:

Ez dago iradokizun edo oharrik.

3) "Tafalla II" Ikastegiari dagokionez:

Eremuko irakasle guztiak "Tafalla II" ikastegiari transferitzen zaizkio. Eskola Kontseiluak adierazi du ezen transferentzia horrek ez duela eraginik izan behar Tafallako "Tafalla II" Bigarren Hezkuntzako Institutuaren langile-zuzkiduretan.

4) "San Miguel de Aralar II" Ikastegiari dagokionez:

Ez du agertu behar hizkuntz ereduak

5) "Estella" Ikastegiari dagokionez:

Ez dago iradokizun edo oharrik.

Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ados dagoela lau Foru Dekretuekin eta aurretik azaldutako oharrekin.

## ertsa

**"BERRIOZAR" DBHI-KO IKASLEAK.**

Zenbaki honetan nabarmendu beharreko pertsonaia ez da neska edo mutil bat, **"Berriozar" DBHIko hirugarren ikasmailako hogeita bi ikasle** baizik. Izan ere, Nafarroa Europako Parlamentuan ordezkatzeko aukeratu dira, erakunde horrek deialdia egiten duen **EUROSKOLA** deialdiaren barruan.

Abentura Javier Segura erlijioko irakasleak ikasleei esperientzia horretan parte hartzeko aukera mahaigaineratu zienean hasi zen. Ikasleetako batzuek azaldu dutenaren arabera, "hasieran ezinezkoa iruditzen zitzaigun, baina saiatzea merezi zuen".

Europako Parlamentuak urtero antolatzen ditu EUROSKOLA programaren hainbat bilkura eta saio. Beraietan Europar Batasuneko herri kideetako gazteek erakunde garrantzitsu honen barrutik eta egun batean egiten dituzte europarlamentario baten funtzioak, eztabaidatuz, proposamenak eginez, bozkatuz...

Aurtengo lehiaketako gaia *"Europako Batasunaren Funtsezko Eskubideei buruzko Gutuna"*. Horren kariaz ikasleei eskatu zaie argitalpena egin dezaten. Azkenean, aukera batzuk aztertu ostean, gazteek horman graffitiak egitea aukeratu zuten, agirira bildutako eskubideak islatuz. Familia, pentsamendu- eta adierazpen-askatasuna, etxebizitza, Natura zaintzea...

Hori guztia zela eta, lan-bilera asko egin behar ziren eta gaian sakondu beharra zegoen. Gainera, postalak inprimatu ziren marraztutako motibo batzuekin, eta Karitasentzat fondoak lortzeko saldu ziren. Horrela, uste zen, Gutunean aldarrikatutako gizarte zuzenagoaren aldeko borroka gure hemengo eta oraingo ekintza zehatzarekin hasten dela.

Azkenik, web orrialdearen (es.geocities.com/berriozar2001) bitartez gazteek beren lan osoa egungo euskarri batean biltzen ahal izan zuten, nahi zuten guztiek konpartitzeko ahal izateko sarean jarriz.

Azken batez, lan horrek, ikasleek azaldu dutenaren arabera, italdearekin gehiago bateratzeko balio izan dui eta hurrengo eskola-urtearen hasieran Estrasburgo hirira egingo duten bidaia izan du sari zuzena.

Honakook zoriondu nahi ditugu: **Carlos Martins, Verónica Iza, Josu del Molino, Gorka Palacios, Pedro Cecilia, Andoni Lorente, Jorge Ropero, Ahinara Urbistondo, Edurne Orella, Vanesa Malo, Jesús Fernández, David de la Chica, Antonio Moya, Fernando Martínez, Sergio Liberal, Mikel Ramírez, Leire Urtasun, Javier Eguaras, Maribel Romero, Carolina Bustos, Begoña Montes eta María Angeles Martínez.**

**"Berriozar" DBHI-KO Ikasleak EUROSKOLA**

ertsoa

## 2000/2001 IKASTURTEKO JUBILIAZIOAK

### 1- LEHEN HEZKUNTZA

**Derrigorrezko jubilazioak.**

| IZENA ETA ABIZENAK | IKASTEGIA |
|---|---|
| Álvarez Pérez, Jesus Restituto | Barañaingo BEI |
| Benito Alonso, Teresa Begoña | Orkoiengo HLIIP |
| De Miguel Marco, Mª Carmen | García de Galdeano HLIIP, Iruñakoa |
| Fernández Ballano, Sonia | Ribaforadako HLIIP |
| Huarte Elordi, Mª Lourdes | Monteagudoko HLIIP |
| Landa Martínez, Jesús | Huarteko HLIIP |
| Montuenga García, Mª Ángeles | Murtxanteko HLIIP |
| Sancho Elizalde, Ángela | San Adriango HLIIP |
| Sarasa Aguinaga, Ana | Iruñeko Baliabide Zentroa |

**Hsagol-eko borondatezko jubilazioak.**

| IZENA ETA ABIZENAK | IKASTETXEA |
|---|---|
| Aldea Sola, Jesús | "Alfonso XI El Sabio" HLIIP, San Adriangoa |
| Amézqueta Izco, Sagrario | "Mendillorri III" HLIIP, Iruñekoa |
| Amuchastegui Cordeu, Ana Mª | Zangozaldea, kultur gutxien godunak |
| Ancín Imas, Miguel J. | "Navarro Villoslada" BII, Iruñekoa |
| Arellano Zozaya, Lydia | "San Francisco" HLIIP, Iruñekoa |
| Arias Álvarez, David | "Virgen del Puy" Ikastexea, Lizarrakoa |
| Arigita Garrido, Celsa María | "Monte San Julián" HLIIP Tuterako |
| Arizmendi Díez, Josefina | "Hilarión Eslava" HLIIP |
| Arratibel Zabala, Pedro | "Iturrama" HLIIP, Iruñekoa |
| Aznarez Salado, Julián | "Félix Zapatero" HLIIP, Balterrakoa |
| Bariain Arregui, Víctor | "Araxes" HLIIP, Betelukoa |
| Barrado Beraza, Antonio | "Virgen del Patrocinio" HLIIP, Milagrokoa |
| Bueno Martínez, Micaela | Lizarraldea |
| Churio Baquedano, Mª Teresa | "Jose Mª Huarte" HLIIP, Iruñekoa |
| De Miguel Martínez, Ángel | "Remontival" HLIIP, Lizarrakoa |
| Gil Albizu, Luis Felipe | "Tierra Estella" BII Lizarrakoa |
| Gómez Alonso, Antonio | "Monte San Julián" HLIIP, Tuterakoa |
| Hernández Barricarte, Ángel Mª | "San Juan de la Cadena" HLIIP, Iruñekoa |
| Hernández Tobías, Mª Teresa | "Juan de Palafox" HLIIP, Fiterokoa |
| Inchusta Arbeola, Mª Blanca | "Victor Pradera" HLIIP, Iruñekoa |
| Iriarte Goñi, Mª Ignacia | "Lorenzo Goicoa" HLIIP, Atarrabiakoa |
| Irurzun Irurzun, Mª Eugenia | "Iturrama" HLIIP, Iruñekoa |
| Jiménez Yanez, Rafaela | "Victor Pradera" HLIIP, Iruñekoa |
| Labayen Iñigo, Benigna | Doneztebeko DBHI |
| Lacruz Gisbert, Salvador | Mendabiako HLIIP |
| Laparra Ripa, Mª Nieves | "Marqués Real Defensa" HLIIP, Tafallakoa |
| Larramendi Marco, J. Antonio | "Virgen de la Oliva" HLIIP, Zarrakaztelukoa |
| López Becerril, Concepción | "Las Amescoas" HLIIP, Zudairikoa |
| López Arnedillo, Felicia | "Ricardo Campano" HLIIP, Bianakoa |
| Macías Lázaro, Mª Carmen | "Ricardo Campano" HLIIP Bianakoa |
| Martínez Zulet, Mª Pilar | "Los Sauces" HLIIP Barañaingoa |
| Martínez Navarro, Joaquín | "Nstra Sra del Patrocinio" HLIIP, Milagrokoa |
| Medina Heredia, Máximo | "Virgen de Gracia" HLIIP, Karkarkoa |
| Oset Olleta, Mª Teresa | Garesko HLIIP |
| Pérez Ordoqui, Mª Josefa | "Azpilagaña" HLIIP, Iruñekoa |
| Pinto Ortigosa, J. Luis | "San Jorge I" HLIIP, Iruñekoa |
| Portillo Pellicer, Mª Pilar | Kortesko HLIIP |
| Rodriguez Serrano, Julia | "Basoko" HLIIP, Iruñekoa |
| Ruiz de Larrinaga García, Mª Pilar | "Ricardo Campano" HLIIP Bianakoa |
| Sesma Gómez, Javier Jose | "Príncipe de Viana" HLIIP, Erriberrikoa |
| Sola Calvo, Mª Teresa | "Nicasio de Landa" HLIIP, Iruñekoa |
| Sorauren de Gracia, Jesús Mª | "Cardenal Ilundain" HLIIP Iruñekoa |
| Suescun Ros, José Ramón | Garesko HLIIP |
| Velasco Gorricho, José Luís | Barañaingo BII |
| Zabala Irigoyen, Isabel | "Xavier Zubiri" HLIIP, Zubirikoa |

### 2- BIHARREN MAILAKO HEZKUNTZA

**Hsagol-eko borondatezko jubilazioak**

| IZENA ETA ABIZENAK | KIDEGOA | IKASTEGIA |
|---|---|---|
| Aizpurua Ibarra, Mª Teresa | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak.-katedraduna | "Plaza de la Cruz" BII, Iruñekoa |
| Fernández Gil, Esther Asunción | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Donapea" BII, Iruñekoa |
| Jaso Martínez, José Andrés | ITEM-eko irak. | "Padre Moret" BII, Iruñekoa |
| Lana Ballaz, Francisco Javier | LHko Irak. Teknikoa | Huarteko BII |
| Larraya Aguinaga, Gabriel | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak.-Katedraduna | "Basoko" BII, Iruñekoa |
| Narbarte Garín, Jesús Miguel | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Plaza de la Cruz" BII, Iruñekoa |
| Rivero Ceballos, María Dolores | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Plaza de la Cruz" BII, Iruñekoa |

# Pertsonak

| IZENA ETA ABIZENAK | KIDEGOA | IKASTEGIA |
|---|---|---|
| Setas Zubieta, María Tránsito | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Benjamín de Tudela" BII, Tuterakoa |
| Verdoy Blanco, Alfonso | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "ETI" BII, Tuterakoa |

**Derrigorrezko jubilazioak.**

| IZENA ETA ABIZENAK | KIDEGOA | IKASTEGIA |
|---|---|---|
| Alegre Madoz, Teresa | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak.-Katedraduna | "Plaza de la Cruz" BII, Iruñekoa |
| Aranda Alonso, José Luis | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Virgen del Camino" BII, Iruñekoa |
| Belloso Pena, Laurentino | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Navarro Villoslada" BII, Iruñekoa |
| Moreno Martínez, Lourdes | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | Zizur Nagusiko BII |
| Muñoz García, Carlos | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak.-Katedraduna | "Plaza de la Cruz" BII, Iruñekoa |
| Nuñez Ríos, Eugenio | Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irak. | "Basoko" BII, Iruñekoa |

# Egunkoak

**NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN 2001/2002 IKASTURTERAKO LAN-PLANA**

Nafarroako Eskola Kontseiluaren ikasturte honetarako jarduketa-planaren barruan sartuta, beste ohiko kontu batzuen artean, honako ekintzok daude:

- Nafarroako Foru Komunitatea bere eskumen-eremuan ukitzen duten hezkuntzako gai garrantzitsuei buruzko manuzko irizpenak ematea.
- Beren 4 urteko agintaldia bete duten Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak behar bezala beriztatzeko mekanismo eta prozedura egokiak egituratzea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren ekimenez "Ikastegi publikoetako eta itunduetako zuzendaritza-taldeak" gaiari buruzko irizpena ematea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren ekimenez "Hezkuntza-zentroen kalitatea, estrategiak eta irizpideak" gaiari buruzko irizpena ematea.
- Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskatuta "Unibertsitate mailakoak ez diren Nafarroako ikasleen eskubide eta eginbeharrak" gaiari buruzko irizpena ematea.
- "IDEA" Informazio Buletinaren 9-10 eta 11 zenbakiak argitaratzea. Nafarroako Ikastegiko Eskola Kontseiluekiko IV. Jardunaldiak egitea, "Eskola-zentroen bizitzako familien partaidetza" gaiarekin; eta txosten edo ekarpen esanguratsuak argitaratzea.
- OVIEDOn 2002ko maiatzean egingo diren Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XIII. Nazio Topaketetan parte hartu eta dagokion jakinarazpena edo txostena egitea, honako gai honekin:
- Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko manuzko Txostena eta 2001/2002 ikasturteari dagokion Eskola Kontseiluaren Memoria egin eta denboran eta eran argitaratzea.

**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO 2000/2001 IKASTURTEKO TXOSTENEKO LEHENESPENEZKO GAIAK**

Nafarroako Eskola Kontseilua agiri bat egiten ari da Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2000/2001 ikasturteko urteko Txostenerako oinarri bezala. Agiri horretako ohiko atalek unibertsitatekoa ez den Foru Komunitateko hezkuntzari buruzko ikuspegi panoramikoa ematen dute eta, gainera, ikasturte bakoitzean saiatzen da halako garrantzi bat duen alderdiren bat azpimarratzen edo sakontzen. Ari garen kasuan, ikasketa eta azterketatik honako gaiok nabarmenduko dira:

* Hezkuntzaren arloko parlamentu-jarduera.
* 0-3 urteko zikloa garatu eta ezartzea.
* Eskola-biztanle etorkinak eta kulturgutxiengodun taldeetakoak.
* Nafarroako hezkuntza-sistemako ebaluazioa eta kalitatea. Ikasleen promozioa.
* Testuliburuak eskuratzeko laguntzak.
* Irakasleak prestatzeko programak.
* Nafarroako Eskola Zentroetako elkarbizitza.

Consejo Escolar de Navarra
Nafarroako Eskola Kontseilua

9. zk.
2001

# Ide eskolara

Nafarroako eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

## editorial

### "IKASTETXEETAKO ELKARBIZITZA: EGOERA ULERTZEKO ERA".

(Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XII. Topaketei buruzko ondorio-agiriaren 1. zatia, Donejakue, 2000ko maiatza).

1. Hezkuntza-zentroetako lanean sartuta dago hezkuntza-erkidego osoa. Beraren kidek egunero aurre egin eta ekiten diote beren lanari. Irakasleek irakasteko eta hezteko beren lana hobetu behar dute, eta ikasleek hezkuntza-edukiak ikasi eta menperatu behar dituzte eta globalki hezi. Batzuetan lanok urriki atsegina edo laguntzailea den giro edo testuinguruan egin behar dira. Hezkuntza-agenteek dute giro hori hobetu eta lehentasunezko lana erraztеko aukera: irakatsi eta ikastea.

Horrela, hezkuntza-prozesuari arrakastaz jarraitzeko ahalegin handiak egin ahalko ditu. Izan ere, horixe da lortu gura den helburua.

Hezkuntza-prozesua erraztu edo zaildu ahal du hezkuntza-agenteen elkarreraginarren ondorioz gelan edo ikastegian etengabe-edo sortzen den giroak. Hezkuntza-agente horiek honakook dira: irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideak. Gelaren kasuan elkarreraginari arloaren ezaugarriak, metodoa eta gunea gehitu behar zaizkio; eta ikastegiaren kasuan, antiolakuntza- eta kudeaketa-estiloa, guneak eta ikastegiaren beste ezaugarri batzuk.

2. Elkarbizitza hezkuntza-prozesuko helburu zehatz eta funtsezkoa da eta berekin dakartza errespetuzko eta adostasunezko jarrera eta portaera onak, eskola-erkidegoko arlo guztien aldetik. Beraren xedea gizarte bizitza heldurako hezi eta eskola-giroa hobetzea da.

Horretarako ezinbestekoa da gizarte osoaren lankidetza. Egin-eginean ere, ikastegietako elkarbizitza, aldez, gizarteko elkarbizitzaren islada da, bertan ikusten diren kontraesanak eta arazoak islatzen dituena. Horregatik, ez da erraza hezkuntza-zentroetan elkarrekin bizitzearen problematikari heltzeko behin-betiko konponbideak ezartzea, eskola murgilduta dagoen gizartean erasokortasun eta indarkeriazko jarrerarik hartzen bada. Izan ere, erasokortasun eta indarkeria fisiko edo psikologikoak zuzeneko eta zeharkako eragina dute hezkuntza-eremuan agertzen diren eragileetan. Hezkuntza-zentroetako elkarbizitza hobetzea beharrezkoa da gizartea osatzen duten pertsona, talde eta erakundeen artean dauden harremanak hobetzeko.



**XII. Topaketa Galizian.**
**Nafarroako Eskola Kontseiluaren ordezkariak**

3. Gatazka gizarte aske eta demokratikoetan ohikoa da, baina, gainera, kontutan hartu behar da ezen eskola-sistema beti izan dela eta dela, berez, gatazkatia, eta eskola-biztanleen gainean presio, inposaketa eta indarkeri maila altua sorrarazten duela: eskolara derrigorrez joan beharra (gero eta eskolarapen luzeagoa), lanak derrigorrez betetzea, norberak aukeratu ez dituen lagunekin derrigorrez bizitzea, helduek hartutako erabakiak, agintea eta ibilera baldintzak eta arauak derrigorrez onartzea eta abar. Erabaki horiek ez dira beti egoten behar bezain adostuta. Ez da batere harritzekoa eskola-sistemak gazte-belaunaldiengan erantzun gero eta kontrakoagoak piztea. Izan ere, beste aldetik, gazteok bizi diren gizartea gero eta permisibo eta bigunagoa da gazte-belaunaldienganako bere eskaeren mailan.